



Arartekoaren 2018R-676-18 Ebazpena, 2018ko azaroaren 29koa. Horren bidez, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailari gomendatzen zaio "Etxebide" Etxebizitza Babestuko Eskatzaileen Erregistroko baja bat indargabetzeko.

Aurrekariak

1. Arartekoak herritar baten kexa onartu zuen izapidetzeko; kexa horren bidez, herritarrak adierazi zuen ez zegoela ados Gipuzkoako Etxebizitzako Lurralde ordezkariak "Etxebide" Etxebizitza Babestuko Eskatzaileen Erregistroan kexagileari baja ematea erabaki izanarekin kexagileak uko egin ziolako errentamendu-araubidean esleitu zioten babes publikoko etxebizitza bati.

Kexagileak bere kexa-idazkian adierazi zuen 2009tik zeramala alta emanda etxebizitza babestuko eskatzaile gisa. Horri lotuta, azaldu zuen ez ziotela jakinarazi etxebizitza bat esleitu ziotenik, eta, adierazi zuen ez zegoela ados erregistro horretan baja emateko ebazpenean aipatutako arrazoiarekin.

Izan ere, kexagileak gora jotzeko errekurtsio bat aurkeztu zuen Etxebizitzako sailburuordearen aurrean; bertan, adierazi zuen administrazioak bazituela bere telefono-zenbakia eta helbide elektronikoa eta, beraz, ez zekiela zergatik ez zen ahalegindu sail hori berarekin harremanetan jartzen. Egitate hori frogatze aldera, kexagileak bere telefono-zenbakia eta helbide elektronikoa jasotzen dituen sail horretan jasotako espedientearen txostena aurkeztu zuen.

Azkenik, kexagileak Arartekoari jakinarazi zion diru-sarrerak bermatzeko errentaren eta etxebizitzarako prestazio osagarriaren titularra zela baina Gipuzkoako Etxebizitzako Lurralde Ordezkaritzak hartutako erabakiaren ondorioz, Lanbidek bi prestazioak eten zizkiola. Horrez gain, aditzera eman zuen biloba adingabea bere kargura duela eta une honetan dituzten diru-sarrera bakarrak kotizazio gabeko pentsio batetik eta zurztasun-pentsiotik datozela.

2. Azaldutako egitateak ikusita, Arartekoak lankidetzeta-eskaera bat igorri zion Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailari.

Arartekoak, bere idazkian, kexagilearen egoera latzaren berri eman zuen eta txosten bat bidaltzeko eskatu zuen; bertan, Gipuzkoako Etxebizitzako Lurralde ordezkariak "Etxebide" Etxebizitza Babestuko Eskatzaileen Erregistroan baja emateko orduan kontuan hartutako arrazoi juridikoak azaldu behar ziren.

Azkenik, Arartekoak eskatu zuen egiaztatzeko nola egin ziren jakinarazpen pertsonalak prozedura horretan; hain zuzen ere, jakinarazteko saiakeren kopia bana bidaltzeko eskatu zuen.





3. Hasierako lankidetzeta-eskaera horri erantzunez, sailak igorritako txosten bat sartu zen erakunde honen erregistroan; bertan, berretsi egin ziren azaldutako egitateak, eta kexagileari "Etxebide" Etxebizitza Babestuko Eskatzaileen Erregistroan baja emateko erabakiari eutsi zitzaion. Izan ere, sail horrek uste zuen, esleipena onartu ez zuenez, uko egin ziola errentamendu-araubideko babes publikoko etxebizitza bati.

Era berean, igorritako erantzunean, sailak jakinarazi zuen jakinarazpen pertsonala egiteko bi saiakera egin zituela, eta, ez zuenez jakinaraztea lortu, erabaki zuela ediktu-epatzea egitea 2018ko urtarrilaren 17ko Estatuko Aldizkari Ofizialean (aurrerantzean, BOE).

4. Hortaz, beharrezko egitateak eta zuzenbide-elementuak ditugula uste dugunez, honako gogoeta hauek egin nahi ditugu:

Gogoetak

1. Duela hamarkada batzuetatik, bai 1948ko abenduaren 10eko Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalak (25.1. artikulua), bai 1966ko abenduaren 16ko Eskubide Ekonomikoen, Sozialen eta Kulturalen Nazioarteko Itunak (11.1. artikulua), baita Europar Batasuneko Oinarritzko Eskubideen Gutunak (34.3. artikulua) ere, azpimarratu izan dute etxebizitzak alderdi soziala duela, pertsonen eta beren familien bizi-baldintzak hobetzen dituelako.
2. Babes publikoko etxebizitza bat legez okupatu ahal izateko, nahitaez eman behar da izena "Etxebide" Etxebizitza Babestuen Eskatzaileen Erregistroan.

Horren harira, ekainaren 18ko 3/2015 Legearen 13. artikulua xedatzen du Etxebizitza Babestuen eta Zuzkidura Bizitokiaren Eskatzaileen Erregistroa sortuko dela, eta horrek ordeztuko duela edo, hala badagokio, jarraipena emango diola aurretik existitzen zen administrazio-erregistroari. Erregistro horren helburua izango da etxebizitza babestuen eskatzaileak ezagutzea; halaber, babes publikoko etxebizitzaren esleipena kudeatzeko eta kontrolatzeko tresna izango da.

Bien bitartean, araudia garatuta ez dagoenez, "Etxebide" Etxebizitza Babestuen Eskatzaileen Erregistroa da etxebizitza babestuen eskatzaileen kudeaketa eta kontrola egiteko lana egin behar duena.

3. Izan ere, zenbait betekizun eta eginbehar bete behar dira "Etxebide" Etxebizitza Babestuen Eskatzaileen Erregistroan izena eman ahal izateko.

Hala, etxebizitza-eskatzaileen erregistroari eta babes ofizialeko etxebizitzak nahiz araubide autonomikoko zuzkidura-bizitokiak esleitzeko prozedurei buruzko Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio sailburuaren 2012ko urriaren 15eko aginduaren





II. kapituluak berariaz ezartzen du zein diren horiek eskuratzeko baldintza orokorrak eta zein izan behar den eskaera ororen eduki zehatza.

Gure kasuan interesatzen zaigunari dagokionez, agindu horren IV. kapituluak aurreikusten ditu izena emandako eskaerei baja emateko arrazoiak.

Zehazki, 18.h) artikulua ezartzen du hauxe dela erregistroko izen-emateari baja emateko arrazoietako bat:

- *“Eskatutako araubidean bizikidetzta-unitatearen bizitegi-premien arabeko etxebizitza baten esleipenari uko egitean...”*

4. Horrez gain, azaldutakoa bezalako kasuetan, non sailak jotzen duen babes publikoko etxebizitza bat ukatu dela, erregistroan baja emateko neurria hartzeaz gain, 19. artikuluaen bat etorri, antzintasuna galtzen da:

“2.– Halaber, ondoren zehaztutako epe hauetan inskribatzeko debekua sortuko da:

(...)

b) Bi urtez, etxebizitza baten esleipenari uko egiten bazaio...”

Hala, aldi-baterako debeku hori murriztu egin da ekainaren 18ko 3/2015 Legearen 13.2. artikuluaen arabera:

- *“...Etxebizitza baten esleipendunak uko egiten badiu esleitutako etxebizitzari, lege hau garatzeko araudian salbuetsita ez dagoen arrazoiren batengatik, baja emango zaio erregistroan eta ezin izango du berriz ere izena eman uko egiten duenetik urtebete igaro arte.”*

Esleipen-ebazpen bati ez erantzuteak dakartzan ondorio larriak kontuan hartuta, beste edozein gogoeta egin aurretik, Arartekoak uste du Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak ahalegin handiagoa egin beharko lukeela babes publikoko etxebizitza baten edo zuzkidura-bizitoki baten esleipendunaren berriazko borondate-adierazpen bat eskuratzeko.

5. Horrez gain, “Etxebide” Etxebizitza Babestuko Eskatzaileen Erregistroan baja emateak kexagilearen diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria iraungitzea bezain ondorio larriak eragin ditzake.

Horri dagokionez, Etxebizitzarako Prestazio Osagarriari buruzko urtarrilaren 12ko 5/2010 Dekretuaren 5.1.c) artikulua ezartzen du honako hau dela etxebizitzarako prestazio osagarria aitortzeko betekizunetako bat:

“Etxebizitza alokatzeko eskatzaile gisa erregistro batean egotea edo egoteko eskatu izana Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailaren¹ Etxebide zerbitzuan.”





Dena den, Lanbidek uste du babes publikoko etxebizitza baten esleipena onartzea Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko abenduaren 23ko 18/2008 Legearen 19.1.b) artikuluan jasotako betebeharraren barruan dagoela, baita Diru-Sarrerak Bermatzeko Errentari buruzko maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuaren 12. artikuluan ere; hain zuzen ere, honi buruzkoa da artikulua hori: *“Titularrari edo bizikidetz-unitateko edozein kideri legokiokoen eskubide edo prestazio ekonomiko oro baliatzea, prestazioak irauten duen aldi osoan”*.

Horregatik, Lanbidek diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria iraungitzen ditu kasu zehatz hauetan: prestazioak jasotzen dituen bizikidetz-unitateak babes publikoko etxebizitza baten esleipena ukatzen duenean.

Baina Arartekoa ez dator bat interpretazio horrekin. Horrenbestez, hain zuzen ere, bere iritzia eman du txosten honetan: *“Diagnostiko txostena, Lanbidek diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria prestazioak hobeto kudeatzeko proposamenak jasotzen dituen, 2017”*². Hala, txosten hori amaitzeko, gomendio bat eman zitzaion Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari, zehazki, gomendatu zitzaion, babes publikoko etxebizitza bat ukatzean, Lanbidek ukapena justifikatzeko arrazoirik dagoen egiaztatzeko eta, soilik hala bada, iraungi dezan etxebizitzarako prestazio osagarria baina ez diru-sarrerak bermatzeko errenta.

Gauzak horrela, Arartekoa adierazi nahi du interesdunari ondorio larriak eragiten dizkiola babes publikoko etxebizitza bat eskaini zaiola ez jakiteak. Izan ere, sailarentzat, gauza bera dira babes publikoko etxebizitza baten eskaintzari ez erantzutea eta hari uko egitea.

6. Testuinguru horretan, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak hauxe jo du: *“Ezinbestekoa da esleipen bati berariaz uko egiteko egintza eta esleipena epe batean ez onartzeko agintza (isilbidezko ukapena) parekatzea, etxebizitzak luzaroan esleitu gabe eta, hortaz, hutsik egotea saihestu nahi bada. Beraz, berariazko ukoak baja ekartzen badu, berariazko onarpenik ezak edo isilbidezko ukapenak, agerikoa denez, `zigor´bera eduki behar du.”*

Azaldutakoa ikusita, egokia ematen du ondorioztatzea sailak ahaleginak egin beharko lituzkeela esleipendunaren borondatea ezagutze aldera, “Etxebide” Etxebizitza Babestuko Eskatzaileen Erregistroko izen-emateari baja eman aurretik.

¹ Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila deritza, lehendakariaren azaroaren 26ko 24/2016 Dekretua onartu ondoren. Dekretu horrek Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioari sailak sortu, ezabatu eta aldatzen ditu eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen ditu (EHAA, 226. zk., 2016ko azaroaren 28koa).

² **Ararteko**. Diagnostiko-txostena, Lanbidek diru-sarrerak bermatzeko errentaren eta etxebizitzarako prestazio osagarriaren prestazioak hobeto kudeatzeko proposamenak jasotzen dituen, 2017 [linean]. 5.3.3.2. atala. Hemen eskuragarri: http://www.ararteko.net/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/1_4199_1.pdf



7. Adierazitako guztiagatik, Arartekoak Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailari eskatu zion babes publikoko etxebizitza esleitzeko ebazpenaren jakinarazpen pertsonala helarazteko saiakera nola egin zen justifikatzeko, eta egiaztatzeko zer jarduketa egin ziren bermeak betetze aldera, hain zuzen ere, ahalik eta neurri handienean ziurtatzeko kexagileak jakinarazpena jasotzen zuela.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legeak (aurrerantzean, 39/2015 Legea) administrazioa behartzen du interesdunei jakinaraztera bere eskubide eta interesak ukitzen dituzten administrazio-egintzak eta, horrez gain, egintzen eraginkortasuna jakinarazpen hori egitearen menpe uzten du (39. eta 40. artikulua).

Laburbilduz, jakinarazpen ororen helburu nagusia da egintzaren edukia interesdunari hel dakion; hala, betiere bermatu behar da ziurgabetasunik ez dagoela jarduteko aukerei dagokienez eta formalitate guztiak xede horren zerbitzura daudela.

Horri lotuta, 39/2015 Legearen 44. artikulua ezartzen du, prozedura batean ez dagoenean argi nor diren interesdunak edo nora bidali behar den jakinarazpena, edo, jakinarazten saiatu bada eta ez bada lortu, BOEn argitaratuko iragarki baten bidez egingo dela jakinarazpena.

Kasu honetan, sailak, behin jakinarazpen pertsonala egiten saiatu ostean, ediktu-epatzearen formula baliatu zuen. Hala eta guztiz ere, ez zuen kontuan hartu espedientean ageri zen kexagilearen informazio pertsonala.

Hain zuzen ere, sailak bere jarduketa justifikatu zuen Arartekoaren aurrean eta hauxe adierazi zuen:

“...interesdunaren eskaera-inprimakian edo datuak aldatzeko inprimakian telefono bat edo helbide elektronikoa bat jartzen denean datu horiek kontuan hartzen dira ebazpenei lotutakoak ez diren kontuetan edo informazioa emateko gaietan; baina ez dira kontuan hartzen etxebizitza baten esleipenaren eta/edo uko egitearen jakinarazpena egin dela jasota utzi behar bada, administrazio prozedurak izapide horretan ezartzen duelako, kasu honetan bezala”.

Adierazitakoa gorabehera, Arartekoak uste du sailak, kasu honetan, modu arduratsuagoan jokatu behar zuela, eta etxebizitzaren esleipenaren berri eman behar zuela eskura zituen bitartekoak erabilita; izan ere, ez zuen neurritz kanpoko esfortzurik egin behar horretarako.

8. Arartekoak aukera izan du bere iritzia emateko jakinarazpenetan bermeak eskatzeari buruz, zehazki, 2015eko irailaren 17ko 2014R-1276-14 Gomendioan³.

³ **Arartekoa.** Arartekoaren 2014R-1276-14 Ebazpena, 2015eko irailaren 17koa. Horren bidez, Donostiako Udaleri gomendatzen zaio ibilgailu bat kentzeko egintza eta suntsitzeko baimena baliogabetu ditzan, eta ofizioz abiaraz

Orduan ere azaldu zen ediktu-jakinarazpenak, benetako jakinarazpen izaera baino, lege fikzio izaera duela. Jurisprudentziak etengabe azpimarratu du hori, eta nabarmendu du administrazioak bere esku dauden arrazoizko aukera guztiak agortu behar dituela, jakinarazpenaren hartzailearekin harremanetan jartzeko.

Konstituzio Auzitegiak adierazi du ediktu-jakinarazpenak *"constituye un remedio último de carácter supletorio y excepcional, que requiere el agotamiento previo de las modalidades aptas para asegurar en el mayor grado posible la recepción de la notificación por el destinatario de la misma, a cuyo fin deben extremarse las gestiones en averiguación del paradero de sus destinatarios, por los medios normales, de manera que la decisión de notificación mediante edictos debe fundarse en criterios de razonabilidad que conduzcan a la certeza, o al menos a una convicción razonable, de la inutilidad de los medios normales de citación"* (Konstituzio Auzitegiaren 32/2008 Epaia, otsailaren 25ekoa, 2. oinarri juridikoa).

Horrenbestez, nahitaez aipatu behar da Auzitegi Gorenaren 2012ko azaroaren 29ko epaia (1580/2010 Epaia), xehetasunez azaltzen duena Konstituzio Auzitegiaren doktrina eta horren inguruko Auzitegi Gorenaren jurisprudentzia bera (4. oinarri juridikoa).

Auzitegiak hauxe dio epai horretan: *"que, al objeto de determinar si debe entenderse que el acto administrativo o resolución notificada llegó o debió llegar a conocimiento tempestivo del interesado, los elementos que, con carácter general deben ponderarse, son dos. En primer lugar, el grado de cumplimiento por la Administración de las formalidades establecidas en la norma en materia de notificaciones, en la medida en que tales formalidades van únicamente dirigidas a garantizar que el acto llegue efectivamente a conocimiento de su destinatario. Y, en segundo lugar, las circunstancias particulares concurrentes en cada caso"*, entre las que destaca *"el grado de diligencia demostrada tanto por el interesado como por la Administración"* y *"el conocimiento que, no obstante el incumplimiento en su notificación de todas o algunas de las formalidades previstas en la norma, el interesado haya podido tener del acto o resolución por cualesquiera medios"*.

Laburbilduz, ediktu-argitalpena azkenengo aukera izan behar da, eta hura erabili behar da administrazioak dagoeneko eska dakizkiokeen gutxieneko eginbideak egin dituenean helbidea zein den jakiteko. Beraz, ediktu-epatzea azkenengo konponbidea da, osagarria eta ez-ohikoa.

Halaber, epaiak dio fede onaren printzipioa *"obliga a la Administración a que, aún cuando los interesados no hayan actuado con toda la diligencia debida en la comunicación del domicilio (bien porque no designaron un domicilio a efectos de notificaciones, bien porque los intentos de notificación en el indicado han sido"*



infructuosos), antes de acudir a la notificación edictal o mediante comparecencia, intente la notificación en el domicilio idóneo, bien porque éste consta en el mismo expediente (...) o bien porque su localización resulta extraordinariamente sencilla"

Eska dakizkiokeen eginbideak direla-eta, Konstituzio Auzitegiak adierazi zuen administrazioak *"no tiene obligación de llevar a cabo largas, arduas y complejas indagaciones ajenas a su función."* (Konstituzio Auzitegiaren 133/1986 Epaia, urriaren 29koa, eta 188/1987 Epaia, azaroaren 27koa).

Hala ere, Konstituzio Auzitegiaren martxoaren 13ko 65/2000 Epaia demandatzailea babestu zuen; izan ere, epai horrek jo zuen administrazioak kexagilearen helbidea jakiteko aukera zuela, espedientean telefono-zenbakia ageri zen-eta.

Amaitzeko, hauxe ezarri zuen auzitegi horrek, zehazki: *"No concurría, sin embargo, el presupuesto necesario para acudir a esta modalidad de emplazamiento, cual es, como se ha señalado, la convicción razonable o la certeza del hecho que le sirve de factor desencadenante, esto es, no ser localizable la demandada"*. El argumento utilizado por el tribunal se basa en el hecho de que *"Basta considerar que, de haberse efectuado el referido examen con la atención y diligencia exigible, se hubiera podido comprobar que en una de las facturas expedidas a nombre de la ahora recurrente en amparo como documentación se adjuntaban a la demanda figuraba manuscrito un número de teléfono, que no podía ser otro lógicamente, como advierte el Ministerio Fiscal que el de la demandante de amparo."*

9. Azaldutakoa ikusita, aintzat hartu behar da kexagileak aurkeztutako izena emateko eskaeran berariaz adierazi zirela harremanetarako telefono-zenbakia eta helbide elektronikoa. Gainera, espedientean jasotako dokumentazioak egiaztatzen du kexagileak baimena eman zuela, berariaz, bide horiek erabil zitezten berarekin harremanetan jartzeko, eta posta elektronikoa hautatu zuela "harremanetarako bide gogokoen" gisa.
10. Arartekoaren iritziz, sailak zenbait bide zituen kexagilearekin harremanetan jartzeko, ediktu-epatzera jo aurretik. Nahikoa zuen espediente bera kontsultatu babes publikoko etxebizitza baten esleipena jakinarazteko behar zituen harremanetarako datuak eskuratzeko.

Laburbilduz, espedientean dagoen dokumentazioa ikusita, ez da jaso mezu elektronikorik bidali ote zen edo saila kexagilearekin telefonoz hitz egiten saiatu ote zen, ediktu-epatzea BOEn argitaratu aurretik.

Horri dagokionez, Arartekoak badaki sailak, ohiko jakinarazpenak posta arruntez egiteaz gain, askotan, jarduketa osatzeko, posta elektronikoz bidaltzen duela informazioa (eskatzailak adierazitako eragin-eremuko etxebizitzaren promozioei buruzko informazioa; izen-ematearen bi urteko indarraldiaren amaieraren eta hura berri beharraren inguruko ohartarazpenak...).





Azaldutako guztiagatik, "Etxebide" Etxebizitza Babestuko Eskatzaileen Erregistroan baja emateak kexagileari eragiten dizkion ondorio larriak kontuan hartuta, Arartekoak uste du Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak modu arduratsuagoan jokatu behar zuela espedientean jasotako datuak egiaztatzeko orduan, interesdunarekin harremanetan jarri eta babes publikoko etxebizitza bat errentamendu-araubidean esleitu ziotela jakinarazte aldera.

Arartekoak berriz ere azpimarratzen du izena emateko eskaeran telefono-zenbakia eta helbide elektronikoa ageri zirela, eta horrek aukera ematen zuela interesdunarekin harremanetan jartzeko. Gainera, horrek ez zekarren sailak bere eginkizunarekin zerikusirik ez zuen neurritz kanpoko ahaleginik egitea.

Aipatutako jurisprudentzia-doktrina eta egindako gogoetak aintzat hartuta, Arartekoak uste du babes publikoko etxebizitzaren eskaintza-egintza ez zela behar bezala jakinarazi.

Hortaz, Arartekoaren iritziz, ez zen bete kexagileak etxebizitza ukatu zuela jotzeko beharrezkoa den egitatezko baldintza, eta, beraz, ez da bidezkoa pertsona horri "Etxebide" Etxebizitza Babestuko Eskatzaileen Erregistroan baja ematea.

Hori guztia dela eta, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak —erakunde hau sortu eta arautzekoak— 11.b) artikuluan ezarritakoaren arabera, Arartekoak honako gomendio hau egiten du:

GOMENDIOA

Adierazitakoa aintzat hartuta, indargabetu dadila Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak kexagileari "Etxebide" Etxebizitza Babestuko Eskatzaileen Erregistroan baja emateko erabakia.

Horrenbestez, gainerako betekizunak betetzen baldin baditu, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak onar dezala kexagilearen izena "Etxebide" Etxebizitza Babestuko Eskatzaileen Erregistroan emateko eskaera, eta eutsi diezaiola haren antzinasunari.

